

Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua sortu zeneko 70. urteurrena gogoratzeko adierazpena

Europa batu, baketsu, demokratiko eta bertako herri eta kulturen aniztasuna errespetatzen duenaren ametsa duela mende bat baino gehiagotik egon da euskal herritarren artean. Pertsona eta autore ezberdinek honen inguruan zituzten ideiak argitaratu zituzten, ideal hauek bultzatu zituzten euren alderdi politikoetan eta aktiboki lan egin zuten kontinentea batzeko.

Balio demokratikoen eta Europaren eraikuntzaren arteko batasun horren ikur hoberik ez dago Agirre Lehendakariak 1948ko maiatzean Hagako Kongresuan parte hartzea baino. Europako gizarte zibilak antolatutako ekitaldi izugarri hura izan zen Europako Mugimenduaren abiapuntua, eta euskaldun ospetsuak atxikiko zitzaizkion hasieratik.

Gerraosteko urteak ekimen eta proiektuz beteta egon ziren. Erbesteko euskal gobernua horietako askotan egon zen. Pariseko egoitzan, Marceau etorbideko eraikinean, sortu zen Europako Federazioaren Euskal Kontseilua 1951ko otsailaren 1ean, Europako Mugimenduaren barruan. Urte horretako ekitaldi politikorik garrantzitsuenak izan zen Parisko egoitzan, eraikina agintari frankisten esku utzi baino lehentxeago.

Euskal Kontseiluko lehen Zuzendaritza Batzordeko buru Gonzalo Nardiz izan zen, Javier de Landaburu idazkari zela. Lehendakariorde eta ordezkariak Jesús M^a de Leizaola, Laureano Lasa, José M^a Lasarte, Ramón M^a de Aldasoro eta Manuel de Irujo izan ziren. Batzordekideak Iñaki de Rentería, Ramón de Agesta, Iñaki de Aguirre, Víctor Gómez eta Julio de Jauregi izan ziren. Euskal Kontseiluak hainbat ordezkari biltzen zituen: Euskal Mugimendu Federalista, Nazioarteko Talde Berriak, Europako Federazioaren aldeko Euskal Mugimendu Sozialista, Nazioarteko Batasun Liberala, Federalisten Europar Batasuna, Gazte Federalistak, Europako Gutxiengoen eta Eskualdeen Kontseilu Federala eta Europa Batuaren aldeko Kristau Langileak.

Kontseilua adostasun politiko garrantzitsu baten ondorioz sortu zen, eta bere lehen erabakia izan zen adostea balio demokratikoak defendatzen zituztenak soilik izan zitezkeela Kontseiluko kide. Euskal Kontseiluak onartu zuen bere egitekoa Europa batu bat eraikitzeko tresna izatea zela, bere herrien printzipio demokratikoen eta autonomiaren arabera; baita euskal irizpidearekin Europako gaiak aztertzea ere. Ildo horretan, Europako Batzarrak Espainian hauteskunde askeak eskatzeko ekimena aztertu eta babestu zen. Halaber, erabaki zen Kontseiluaren misioa, politikoa izateaz gain, aztertzea ere izan beharko zela, hainbat lan-batzorderen lanaren bidez. Schuman Adierazpena aztertzen hastea erabaki zen, bai eta une horretan Europako lehen erkidegoa garatzen ari ziren negoziazioak ere.

EuroBasqueko egungo Zuzendaritza Batzordeak, aitzindari haien ikuspegiaren oinardeko, harrotasunez gogorarazi nahi ditu garai zailetan Europa batu eta baketsu baten alde egin zutenak. Gaur egungo Europar Batasunak, perfektua ez izan arren, ziurrenik erakunde horren sortzaileak hunkituko lituzke, gaur egungo 27 estatu kide eta 440 milioi pertsona kontuan hartuta, herritarrek zuzenean aukeratutako Parlamentuarekin eta moneta bakarrarekin. Horregatik, EuroBasquek, berriz ere baldintza zailetan, Europa federal, baketsu eta demokratikoaren aldeko apustua berritu du, kontinenteko herri guztiak batuko dituen eta gure balioak eta eredu soziala munduan defendatzeko gai izango dena.

2021eko otsailaren 1a